

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

162

AGINDUA, 2011ko abenduaren 19koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuarena. Honen bidez, Elgoibarko Makina-Erremintako Prestakuntza Teknikorako Fundazioaren Txandakako Ingeniaritza Eskola Euskal Herriko Unibertsitateari atxikitzea onartzen da.

Elgoibarko Makina-Erremintako Prestakuntza Teknikorako Fundazioaren Txandakako Ingeniaritza Eskola industriaren eta erkidegoaren zerbitzuan dagoen prestakuntza eta berriztapen teknologikoko ikastegi bat da. 1989an sortu zen. 1994an Makina-Erremintarako Institutuak hausnarketa estrategiko garrantzitsu bati ekin zion eta ondorio hau atera zuen: «enpresen, makina-erremintaren sektorearen batez ere, premietara egokitutako goi mailako Ingeniaritza-ikasketak eskaintzeko» helburua gorpuztu behar izatea. Helburu horrekin premien azterketa bat eta bideragarritasun-plan bat landu ziren, analisi prospektibo batekin. Horrekin guztiarekin merkatu tradizionalan zegoen eskaintza osatu ahal izateko eta hausnarketan parte hartzen zuten eragile eta enpresek adierazitako premiari erantzuna eman ahal izateko moduko beste proposamen bat formulatu eta gauzatu zen, etengabeko berriztapena lortu nahian, goi irakaskuntzen testuinguru europarraren esparruan eta beste prestakuntza-eredu berriztatzaile batekin.

Elgoibarko Makina-Erremintako Prestakuntza Teknikorako Fundazioaren Txandakako Ingeniaritza Eskola Euskal Herriko Unibertsitateari atxikitzeko eskaerak estatu osoan baliagarri izango den titulu ofiziala lortzera bideratutako ikasketak ezartzea du helburu.

Atxikipenarekin Euskal Herriko Unibertsitatearen helburuak beteko direla bermatzen da, ikasketen eskaintza prestakuntza- eta berriztapen-ikuspuntuaren aldetik handitzen delako; izan ere, alternantzia oinarritutako metodologia erabiltzen da, ikaslea bere prestakuntzan ekoizpen-prozesuaren parte-hartzailea da eta ematen zaio egiazko denboran eskuratutako gaitasunak garatzeko eta bi kultur testuinguru desberdin, unibertsitate-jakintzarena eta enpresan eraikitako ikaskuntza esperimentalena, ezagutzeko aukera. Horrela lan-munduan txertatzeko profesionalki prestatuta egongo dela segurtatzen da.

Euskal Autonomia Erkidegoak, Autonomia Estatutuak 16. artikuluan xedatutakoaren arabera, irakaskuntzaren konpetentzia osoa du, maila, gradu, modalitate eta espezialitate guztietan, Konstituzioaren lehen xedapen gehigarria, apirilaren 12ko 4/2007 Lege Organikoak aldatzen duen abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoa, Unibertsitateena, eta otsailaren 25eko 3/2004 Legea, Euskal Unibertsitate Sistemarena, kontuan hartuta.

Apirilaren 12ko 4/2007 Lege Organikoak aldatzen duen abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoak, Unibertsitateenak, 11.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, Autonomia Erkidegoak, Unibertsitatearen Gobernu Kontseiluaren proposamenez eta Gizarte Kontseiluak alde aurretik aldeko txostena eman ondoren, oniritzia eman beharko dio titularitate publiko edo pribatuko ikastetxeak unibertsitate publiko edo pribatu bati, estatu osoan baliagarri izango diren titulu ofizialak lortzera bideratutako ikasketak ezartzeko, hitzarmenaren bidez atxikitzeko prozesuari.

Otsailaren 25eko 3/2004 Legeak, Euskal Unibertsitate Sistemarenak, 62.2.e) artikuluan hau xedatzen du: unibertsitateen arloan konpetentziak dituen departamentuak du, besteak beste, unibertsitate-titulu ofizialak emateko asmoz ikastetxeak atxikitzeko eta atxikipen horiek kentzeko prozesuari oniritzia emateko eskuduntza.

Indarrean dauden Euskal Herriko Unibertsitatearen estatutuek, otsailaren 15eko 17/2011 Dekretuaren bidez onartuek, 132.1 artikuluan xedatzen dutenez, Gobernu Kontseiluak ezarriko du ikastetxeak atxikitzeko eskaerak erregulatzeko araudia. Atxikitako ikastetxe horiek sortu ahal izango dira, betiere Euskal Herriko Unibertsitatearen helburuen kontra ez badoaz.

Horregatik guztiarengatik, Euskal Herriko Unibertsitateko Gobernu Kontseiluak 2011ko urriaren 11n hartu zuen akordioa, Elgoibarko Makina-Erremintako Prestakuntza Teknikorako Fundazioaren Txandakako Ingeniaritza Eskola Euskal Herriko Unibertsitateari atxikitzeko bi instituzioek 2011ko abenduaren 1ean izenpetu zuten hitzarmena eta Gizarte Kontseiluaren 2011ko abenduaren 14ko aldeko txostena ikusita eta proposamena, abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoak 11.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoari helarazi ondoren,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.— Oniritzia ematea Elgoibarko Makina-Erremintako Prestakuntza Teknikorako Fundazioaren Txandakako Ingeniaritza Eskola Euskal Herriko Unibertsitateari atxikitzeko prozesuari.

Bigarrena.— Elgoibarko Makina-Erremintako Prestakuntza Teknikorako Fundazioaren Txandakako Ingeniaritza Eskolak, Euskal Herriko Unibertsitateari atxikitako ikastegiak, abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoa, Unibertsitateena, aldatzen duen apirilaren 12ko 4/2007 Lege Organikoak, otsailaren 25eko 3/2004 Legeak, Euskal Unibertsitate Sistemarenak, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen legeak eta aplika daitekeen gainontzeko legeriak xedatutakoaren arabera jokatuko du.

Hirugarrena.— Eskola honen jarduerak bi instituzioen artean izenpetutako lankidetzahitzarmenaren arabera gauzatuko dira eta, betiere, Euskal Herriko Unibertsitatearen estatutuetan, ikastetxeen araudi-markoan eta aplika daitekeen gainontzeko legerian xedatutakoa kontuan hartuta.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko abenduaren 19a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburua,
MARÍA ISABEL CELAÁ DIÉGUEZ.